



ALDEZ AURREKO KONTSULTA FORU DEKRETU PROIEKTUAZ, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN LAN ETEKINEN GAINEAN EGIN BEHARREKO ATXIKIPENEN EHUNEKOAK ALDATZEKOAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak aldatzeko etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, abenduaren batera arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Batzar Nagusietan izapidetze bidean da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifa aldatzen duen foru arauaren proiektua.
--------------------	---



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Egokitzea lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren tarifa aldaketari, azkenik onartzen bada Batzar Nagusietan.
HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezko eta egoki da aldaketa egitea egokitzeko, beharrezko balitz, atxikipenen ehunekoak.
HELBURUAK	Aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	Ez dago konponbide ordezkorik, zergaren egungo egituraren arabera.